# LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN

## “JAKINMINA”



2018-2019 IKASTURTEA

18-2019

# “JAKINMINA”

## LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN (FCCL)

Eskakizunekiko anitzak eta egokituak dauden esparruak dira. “Jakin nahi” batetan kokaturik daudenei zuzendua izatea da, gure ustetan, ardatz nagusia.

FCCL beraz, psikoanalisian interesaturik dagoen edonorentzako irakaskuntza esparru ireki bat da.

Bere baitan egiten den jarduerak psikoanalisian, urtez, prestakuntza sendo eta jarrai bat gure esparruan, Freud eta Lacan hain zuzen ere, egitea baimentzen du.

Honez gain Jakin-minak Donostiako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoekin duen hitzarmenek, klinikarako hain oinarrizkoa den Erien Aurkezpena ahalbidetzen dute, non analistek, kontsulta pribatuetara hain maiz gerturatzen ez diren patologia sakonak aurrez ikus ditzaketen.

Bere xedean egiten diren kasu klinikoen azalpen eta erien aurkezpenetara azaldu ahal izateak, gure egungo ondoezen eta sintomen ulerkuntza, abiapuntu kliniko batetik egiteko aukera zehatza eskaintzen dute. Bere etikara iritsiaz, hau da, ondoren interpretatuko duen psikoanalista batengandik pazientea entzuna izatera, psikoanalisiaz galdekatuak izango dira sintoma eta ondoeza hauek.

2018-2019 ikasturteko aktibitateak, psikoanalisiak gure gizarte eta garaiaren ondoezei ematen dien erantzunetan interesaturik dagoen edonori zuzenduak daude, psikoanalista, psikologo, psikiatra, Osasun mentalean diharduten langileei, mediku, filosofo, irakasle, ikasle, eta orokorki, edozein jakintza arlotik, gaur egungo gizartearen adierazgarri diren aurrerakuntza zientifikoek, subjektuarengan duten eraginaren aurrean, psikoanalisiaren eskaintzan interesaturik dagoen edonorentzako.

Ez da beste jarduerarik, subjektua, bere eskaria adierazterakoan egi sintomatikoa adierazten duena bezala harturik, beregan hunkitzen duen inkontzientearen zergatira zuzenduko duenik.

*Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoak Euskal Herrian*, 1998an hasi zenetik, jarraian, hemeretzigarren kurtsoari ekingo dio 2018-2019 ikasturtean, bertan sei modulu proposatzen direlarik:

# MINTEGI TEORIKOA

**Jacqes Lacan**
XI MINTEGIA
PSICOANALISIAREN LAU FUNTSEZKO KONTZEPTU

1953 tik aurrera Freuden testuetan oinarritzen den lehen irakaskuntza garai baten ondoren, non postfreudiarren psikoanalisiaren nora eza zuzentzen ahalegintzen den, Lacanek bere lana psikoanalistei zuzentzen die gehien bat.

1963an, didakta izaera galtzen du Psikoanalisi Elkargo Internazionalean. Hau paradoxa bat da bere baitan eta psikoanalisi bat zer den eta hainbat beste galdera dakarzkigu, hala nola: analista bat nola gaitzen da?, zein dira erakunde analitikoak?, nola baimentzen da gizabanako bat diskurtso analitikoan.

Bira honen ondoren 1963tik aurrera, Aitaren izenak bere Mintegiko azaroaren 21eko saio bakarraren ondoren bere norabideari amaieran ematea erabaki eta Psikoanalisiaren lau funtsezko kontzeptu Lacan entzule orori zuzentzen hasten da, freudiar eremuari buruzko burutapen batetan oinarriturik publiko irekiari eskainitako mintegi bat.

Psikoanalisiaren hastapenak, Lacanen ikuskeran "inkontzientea" Mintegi baten bidez bakantzeko xedea. Hau da gune bizi bat, non analizante gisa, asoziazio askean, Freudengana itzuleran pentsamendu hori lantzen den, solaskide eta ikasleekin elkarlanean.

Freud berrirakurtzea Lacanen Errealetik abiatzea kontzeptuak binaka hartuz: Transferentzia eta Errepikapena Lacanen "a" objektuarekin, eta Inkontzientea-Bulkada, Lacanen alienazio-banatze kontzeptuekin, terminoak argitzen ahaleginduz. Lau kontzeptuetan amankomuna Inkontzientea da.

Honek transferentzian analistaren kokapena suposatzen du, bere ekarpenen mamiari uko egin gabe eta bere praxia, ekintza analitikoa unez unean gauzatuz bizirik iraun araziaz.

2. modulua

## IRAKURKETA MAHAIA

Etika Mintegiaren saio bakoitzari dagozkion gaien aldez-aurreko irakurketa egiteari ekingo zaio.

(Lacan, J. (1964). Libro11. Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis *El seminario de Jacques Lacan*. Barcelona, Paidós.)

## Egutegia

| | |
|---|---|
| 2018ko urriak 09 | 2019ko otsailak 12 |
| 2018ko urriak 23 | 2019ko otsailak 19 |
| 2018ko azaroak 06 | 2019ko martxoak 05 |
| 2018ko azaroak 13 | 2019ko martxoak 19 |
| 2018ko azaroak 27 | 2019ko apirilak 02 |
| 2018ko abenduak 11 | 2019ko apirilak 09 |
| 2019ko urtarrilak 08 | 2019ko apirilak 30 |
| 2019ko urtarrilak 22 | 2019ko maiatzak 7 |
| 2019ko otsailak 05 | |

**Non**

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren Egoitzan
Okendo Kalea 5, 2. C.

**Noiz**

Asteartetan 20:00etaik a 21:30etara

**Koordinatzaileak**

Mikel Plazaola, Teresa Velasco, María Jesús Zabalo

**3. modulua**

# TESTUEN MINTEGIA (XI. MINTEGIA) ETA KASU KLINIKOEN AZALPENA

Gure ustetan, kasu klinikoen aurkezpen kasu klinikoak eguneroko lanbide klinikoan topatu ohi diren bezala lantzeko modu bat da, alegia, ordenamendu klinikoarekiko interesa sendakuntzaren gidaritza-ereduekin bateratzen den gunea.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, nahiz Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikoak lantzeko Bartzelona, Bilbo, Donostia, Madril, Paris eta Pabeko, psikoanalisten partaidetza dugu.

Psikoanalisiaren irakaskuntzan eta besterentzat adituak diren psikoanalistak.

## Egutegia

### 2018ko urriak 27

Bernard Nomine. Psikanalista Paben.
Sarrera orokorra eta I eta II kapituluak
Kasu aurkezle: Eli Irureta
Koordinatzaile: Mª Jesus Zabalo

### 2018ko azaroak 10

José Monseny. Psikoanalista Bartzelonan
III., IV. eta V. kapituluak
Kasu aurkezle: Garazi Muguruza
Koordinatzaile: Mikel Plazaola

### 2018 ko abenduak 15

Andrés Múgica. Psikoanalista Bilbon
VI. VII. kapituluak
Kasu aurkezle: Karmen Clemente
Koordinatzaile: Josune Aréjula

### 2019ko urtarrilak 26

Trinidad Sanchez Biezma de Lander. Psikoanalista Madrilen.
VIII., IX. kapituluak
Kasu aurkezle: Begoña Alegría
Koordinatzaile: Teresa Velasco

**2019ko otsailak 23**

Ana Alonso. Psikoanalista Madrilen.
X., XI. eta XII. kapituluak
Kasu aurkezle: Vanessa Rodriguez
Koordinatzaile: Mª Jesus Zabalo

**2019ko martxoak 30**

Vicky Estévez. Psikoanalista Parisen
XIII. XIV. eta XV. kapituluak
Kasu aurkezle: Teresa Velasco
Koordinatzaile: Bittori Bravo

**2018ko apirilak 13**

Ritheé Cevasco. Psikoanalista Bartzelonan
XVI. XVII. eta XVIII. kapituluak
Kasu aurkezle: Xabier Moñux
Koordinatzaile: Tereko Zaballa

**2019ko maiatzak 11**

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen.
XIX., XX., kapituluak eta itxiera.
Kasu aurkezle: Itziar Artetxe
Koordinatzaile: Juan del Pozo

**Non**

San Sebastian Hotela. Eguzki aretoa
Zumalakarregi ibilbidea 20 Donostia

**Ordutegia**

10:00etatik 14:00tara

# ERIEN AURKEZPENA

Psikoanalistek eginiko aurkezpen klinikoen praktika nagusiki Lacanengandik jaso dugu. Ospitale Psikiatrikoetako aurkezpen klinikoak aspaldikoak dira, baina Lacanen iritziz, bera psikoanalista izanik, garbi da aurkezpen hauek gehien bat psikoanalistei zuzenduak behar dutela izan. Ez ordea psikiatrei hala diren neurrian, psikoanalistei baizik.

Nire ustez horren arrazoia, eta zentzuzkoa iruditzen zait, honako hau da: psikoanalistek subjektu guztiengandik ikasi behar izatea. Ez soilik neurotikoengandik, hauek baitira maizen kontsultara jotzen dutenak; baita psikotikoengandik, nahiz eta hauek kontsulta pribatuetara gutxiagotan iritsi. Psikoanalista egitura kliniko guztietatik ikasi beharrean dago, kokapen subjektibo guztietatik eta psikotikoek jasaten dituzten fenomeno guztietatik, azken finean subjektu psikotiko batez esan dezakegun gauzarik xumeena, beste edozein subjektu bezalakoa dela hasteko, subjektu hiztun den neurrian, baina sarritan fenomeno nahiko bereziak pairatzen dituen subjektu bat dela, hauetatik asko ikasi dezakegularik.

Publiko zabal baten aurrean aurkeztutako gaixo batekin “elkarrizketa”

mantentzea arazotsua suerta daiteke agian. Lacanek izendatzen zuen gaixoen kokapen subjektiboak errespetatzen duen elkarrizketaz ari gara eta elkarrizketa horren garrantzia azpimarratu nahi dut, zeren eta elkarrizketa ez bada, zer da?. Behaketa besterik ez da, zoologian bezala, beste gisan hartu norbait eta behatu. Eztabaida eta elkarrizketarako egokienetakoa ez den testuinguru batetan elkarrizketa mantentzea erien aurkezpenaren zailtasunetariko bat dela uste dut.

Eta, agian, zenbaitetan elkarrizketa mantentzea baliagarria izan daiteke gaixoarentzat edo eta baliagarria izan daiteke era berean gaixo hau zaintzen duten pertsonentzat, harekin lan egiten dutenentzat. Hau guztia noski, kasu bakoitzaren arabera.

**Colette Soler**
Zamudio, 18-06-99

## Erien aurkezpenen egutegia

**2018ko urriak 26**

Bernard Nomine

**2018ko azaroak 09**

José Monseny

**2018ko abenduak 14**

Andrés Múgica

**2019ko urtarrilak 25**

Trinidad Sanchez Biezma de Lander

**2019ko otsailak 22**

Ana Alonso

**2019ko martxoak 29**

Ez da erien aurkezpenik egingo. Ordez, “hots-ahots” jarduera-tailerra egingo du Vicky Estevez-ek Foroko egoitzan.(Okendo 5, 2.)

**2019ko apirilak 12**

Rithée Cevasco

**2019ko maiatzak 11**

Luis Izcovich

**Koordinatzailea**

Tereko Zaballa

**Lekua**

Donostiako San Juan de Dios Ospitalean

**Ordutegia**

Ostiraletan 18:00etatik 20:00tara

## 5. modulua

# KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

Kasu klinikoen garapenen lan zehatza azaltzen du eta aurten berriro murgilduko gara Historial hauetan, Lacanen 11. Mintegian landuko ditugun psikoanalisiaren lau funtsezko kontzeptu hauek kokatzeko ahaleginetan.

Hitzaldiak, psikoanalisian sarrera eskaintzeaz gain, gure eskoletan egun dirauen edukien zati batekin batera, Freuden azalpenen estiloa, bere iritziena, bere psikoanalisiaren teoriaren eraikuntzarena, bere entzuleriarekin harreman bizitu bat mantenduz, Freudek berak bere iritzien eztabaida eta eragozpenak azalduaz.

Bere elkarrizketen estilora, “Nik ez dizuet komunikatu nahi, zuek ondorioztatzea nahiago dut” zionean bezala. Objekzioak ez dute isilpeko gelditu behar, zabalki azaleratuak eta aztertuak baizik.

Lana, testu hauen inguruan uztartuko da:

Freud, S. (1893-95) Historiales clínicos (Breuer y Freud)1. Señorita Anna O. Obras completas (Vol., págs. 47-71) Amorrortu.

Freud, S. (1920) Sobre la psico génesis de un caso de homosexualidad femenina. Obras completas (Vol. XVIII, págs. 137- 165) Amorrortu.

Freud, S. De la historia de una neurosis infantil (1914-18) Obras completas. (Vol. XVII, págs. 1-112) Amorrortu.

Freud, S. (1915-7) Conferencias de introducción al psicoanálisis. Obras completas. (Vol. XV y XVI) Amorrortu.

Freud, S. (1932-3) Nuevas conferencias de introducción al psicoanálisis. Obras completas (Vol. XXII, págs. 1-146) Amorrortu.

## 2018-2019ko egutegia

2018ko azaroak 07

2018ko azaroak 21

2018ko abenduak 19

2019ko urtarrilak 09

2019ko urtarrilak 23

2019ko otsailak 06

2019ko otsailak 20

2019ko martxoak 06

2019ko martxoak 20

2019ko apirilak 03

2019ko maiatzak 08

**Non**

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren Egoitzan Okendo Kalea 5, 2. C.

**Ordutegia**

Asteazkenetan 20:00etatik 21:30etara

**Koordinatzaileak**

María Jesús Zabalo, Mikel Plazaola eta Josune Aréjula

**Expondrán**

Juan del Pozo, Bittori Bravo, Mikel Plazaola, Teresa Velasco, Mª Jesús Zabalo, Arkaitz Irazabal, Aitor Guisasola y los asistentes que deseen hacerlo una vez iniciado el curso

**6. modulua**

## LACANIAR ALORREKO LOTURAK

Aurten ere, Jacques Lacanen garaikidea zen *Maurice Blanchot*-en lana lantzen jarraituko dugu, baina batik bat bere literatur kritikan jarriko dugu azpimarra. Berak bere burua irakurle gisa ikusten zuen eta.

Bere lan kritiko nabarmenenak hauek dira: *Faux pas, La part du feu, L'espace littéraire*.

Berak aztertutako zenbait idazleen artetik, *Malarmé, Rilke, Artaud, Lautréamont y Sade, Hölderlin…'n* jarriko dugu arreta.

Bere lanak eragin haundia izan zuen zeinbat idazleen artean, batzuk aipatzekotan *Roland Barthes, Jacques Derrida eta Michel Foucault* esango nituzke

Denborak uzten badigu, *Roland Barthesen* lanak aztertzen hasiko gara.

## Egutegia

2018ko urriak17
2018ko azaroak 14
2018ko abenduak 12
2019ko urtarrilak 16
2019ko otsailak 13
2019ko martxoak 13
2019ko apirila 10
2019ko maiatzak 15

**Non:**
Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan. Okendo kalea 5, 2. C. Donostia

**Ordutegia:**
Asteazkenetan 20:00etatik 21:30etara

**Koordinatzaileak:**
Ángel Murias eta Xabier Oñativia

### Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XIX. Jardunaldi bateratua Vigon burutuko da 2018ko maiatzaren 25ean. Gaia “Analisian sartzea” da. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoek hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l’Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkarte Psikoanalitikoa Santiago/Vigo, Foroa,Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrilgo Kolegio Psikoanalitikoa, Col-legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoak/Asturiasko Foro Psikoanalitikoa, Jakin-mina Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoak Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klinikoko ikasle eta irakasleentzat.